



# MEKATRONIKA INDUSTRIALA

GOI-MAILA



Ziklo honetako ikasleak makina-erreminta eta linea automatizatuaren instalazioa, muntaketa eta mantentze-lanerako prestatzen dira.

**Iraupena:** 2.000 ordu  
**Hizkuntza:** D eta A ereduak  
Eredu eleanitza (ingelesez)

## GAITASUN OROKORRA

Sistema mekatroniko industrialak konfiguratzeko eta optimizatzea, eta horiek muntatzeko eta mantentzeko lanak planifikatzeko, gainbegiratzeko eta/edo gauzatzeko, betiere kalitatearen, segurtasunaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenarekiko errespetuaren arloko protokoloak jarraituta.

## PRESTAKUNTZA PLANA

### 1. MAILA

- Sistema hidrauliko eta pneumatikoak
- Sistema elektrikoak eta elektronikoak
- Makina-elementuak
- Fabrikazio-prozesuak
- Sistema mekatronikoen irudikapen grafikoa
- Sistemen integrazioa
- Laneko prestakuntza eta orientabidea

### 2. MAILA

- Sistema mekanikoak
- Sistema mekatronikoen konfigurazioa
- Mantentze-lanen eta kalitatearen prozesuak eta kudeaketa
- Sistema mekatronikoen simulazioa
- Mekatronika industrialeko proiektua
- Enpresa eta ekimen sortzailea
- Ingeles teknikoa
- Lantokiko prestakuntza

## IRTEERA PROFESIONALAK

Profesional hauek sistema mekatronikoak edo makineria, industria-tresneria eta linea automatizatuak garatzera eta gainbegiratzera, eta horien proiektuak garatzera, zuzentzen diren enpresetan, batez ere pribatuetan, egiten dute lan, beren kontura edo besteren kontura.

### LANPOSTUAK

- Muntatzaile elektrikoa
- Linea automatizatuaren instalatzailea
- Makina-erremintaren muntatzailea
- SAT teknikaria

